

Ostegunean hasiko da Asmube emakume elkartean helduei bereziki zuzendutako ipuin kontaketa tailerra

Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik umeek bezalaxe gozatu ahalko dute

U. Barandiaran

Ipuinak umeen gogoko bakarrik ez direla agerian utziz, ostegun honetan hasiko da Asmube emakume elkartean helduentzako ipuin kontaketa tailerra. Haur literaturaren onurak helduentzako izenburupean Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik jasoko dituzte klaseak ikastaroan izena eman dutenek.

Antolatzaileek helburu ugari azpimarratu dituzte; batzuk aipatzearren: Ipuin eta narrazioen onurak ezagutzea, narrazioaren bidez gure adierazpen gaitasuna hobetzea, talde baten aurrean hitz egiteari diogun beldurra kentzea eta interpretazioaren oinarrizko teknikak ezagutzea. Helburu horiek lortzeko azalpen teoriko laburrak, taldekako zein bakarkako ipuin azterketak, gorputz espresio ariketak eta narrazioak egingo dituzte, besteak beste.

Eduki horien bidez ipuinaren ahalmen eta erakargarritasunaren arrazoiak ezagutuko dituzte ikasleek.

Ikastaro horrez gain, liburutegian ere beste bat eskaintzen ari da Maite Franko ipuin kontalaria. Honakoa gaztetxoei zuzenduta dago eta urrian eta azaroan zehar izango dira klaseak.